

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak nabarmendu du “aldaketaren bi urteak igaro ondoren, errealitateak Gobernuaren egonkortasuna eta kudeaketa egiaztatzen dituela”

Etorkizuneko erronka nagusiak bezala, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioak, aurrekontuen diseinua eta oinarrizko azpiegituren garapena aipatu ditu

Ostirala, 2017.eko uztaialak 28

Nafarroako Lehendakaria den Uxue Barkosek Nafarroako Gobernuaren aurrean emandako legealdiaren bi urteen inguruko [balantzea](#) egin du; modu horretan, legealdiaren ekuatorea dela-eta, departamentu ezberdinek beren kudeaketaren inguruan gizartearen aurrean kontuak emateko bi aste hauetan zehar egindako agerraldiak amaitu dituzte.



Nafarroako Lehendakariak, Uxue Barkosek, legegintzaldiko bi urteen gaineko balantzea egin du.

Barkos Lehendakariak ondorengo nabarmendu du: "Nafarroak egun bizi duen errealitatea begien bistakoa da, eta gizarteak aldaketa hori ere bizitzen ari da".

Era horretan, Lehendakariak esan du legealdiaren erdiko balantzean, Gobernuak errealitateen laburpen argia eskaini dezakeela, eta bi kapitulu nagusitan biltzen direla: egonkortasuna eta kudeaketa.

Egonkortasunari dagokionean, Barkosek honako hau azpimarratu du: "krisia hasi zenetik, garai egonkorrean aurkitzen gara, eta hori funtsezkoa da Nafarroako adierazle sozio-ekonomikoen multzoak hobetzeko eta ildo berean epe labur eta ertainera joera markatzeko".

Kudeaketaren gainean, adierazi du legealdiaren lehen urtea "larrialdiak artatzen, larrialdi sozialen lehentasunak ezartzen, kontuak koadratzeko zuloak estaltzen eta plangintzak egiten igaro bazuten ere, legealdiko bigarren urte honetan errealitateez hitz egin behar dela".

Modu horretan, Barkosen hitzetan, errealitatea da Nafarroan legealdia hasitakoan

baino enpresa gehiago daudela, gizarte-segurantzara afiliatutako pertsona gehiago, I+G laguntzak ia bikoiztear daude aurreko legealdiarekin alderatuta, laguntzak eta prestazioak jasotzen dituzten mendeko pertsonak %30 gehiago dira, Nafarroak legealdi honetako laguntzaren bikoitza jartzen du pobrezari aurre egiteko, kaudimenaren rating onena du zorraren finantzaketa jartzeko, kontsultaren zain dauden 10.000 gaixo gutxiago daude 2015eko ekainean baino eta 1.267 gaixo gutxiago ebakuntza kirurgikoaren zain.



Barkos Lehendakaria, hitzaldiaren beste une batean

Halaber, Lehendakariak, besteak beste, gogoratu du eskoletarako azpiegituren aurrekontua %100 hazi dela aurreko legegintzaldian egindakoarekiko, derrigorrezko ikasketen ondorengo ikasketetarako eta unibertsitate-ikasketetarako beken inbertsioa %20 gehitu dela, euskararen errealitatea normalizatu egin dela, Memoria Historikoa duin bihurtu dela, aparteko ordainsariaren %100 berreskuratu dela, eta Nafarroak Frankfurt-en ordeko *hub-a* duela gaur egun.

Etorkizuneko erronkak

Etorkizuneko erronkei dagokienean, Barkosek Estatuarekin Hitzarmen Ekonomikoaren gainean egindako negoziazioak aipatu ditu: "datorren bosturterako eredu egonkorra eta harremanez orekatua adostu nahi da".

Horrez gain, aldaketaren egonkortasunaren funtsezko elementu gisa, Lehendakariak honako hau adierazi du: "diseinatuko dugun aurrekontuan inbertsioa egiten jarraituko dugu gizarte-kohesioan osasunarekin, hezkuntzarekin eta mendekotasunarekin, horren egitura-ardatz bezala, eta kulturaren aldeko apustua, I+G+b-ren aldekoa (garapen ekonomikoaren ardatza izanik) eta lurralde-egituraren aldekoa egiten jarraituko dugu, XXI. mendeko Nafarroa hedatzeko plataforma gisa".

Epe ertainera, Lehendakariak ondorengo azpimarratu du: "Nafarroak oinarrizko azpiegiturak kontuan izan behar ditu etorkizuneko garapenerako, egungoak era onean mantentzen dituen bitartean". Ildo horretan, "zentzua jarri dute Nafarroako Kanala bezalako funtsezko obraren definizioan eta, trenbideen azpiegiturretan ere bai"; alderdi horretan nabarmendu du "Nafarroa Euskal Y-arekin lotu nahi dutela eta horrekin Europa kontinentalerako irteera jarri Europako trenbide-zabalera, merkantzia eta bidaiarientzat".

Barkos Lehendakariak esan du bere ustez "bi urte hauetan lortutako ratioekin hurrengo beste bietan hobetzen joan dezaketela". Eta, Europari begira, Barkosek nabarmendu du "Nafarroak Europako lehen mailako abiaduran egon behar duela berez duen gaitasunarengatik".

Lehendakariaren agerraldian, "Navarra avanza contigo /Nafarroa zurekin aurrera 2015-2017" dokumentua entregatu dute, eta, bertan, memoria labur bezala, Nafarroako Gobernuak legegintzaldiko lehen bi urte hauetan garatutako jarduera naqusiak biltzen dira.